

xinple!

EUSKARA



AGOIZKO UDALA

24. zenb. 2022ko martxoa

ZERBITZUAK

Udaletxea 948 33 60 05

Euskara Zerbitzua 948 33 65 65

Kultur Etxea 948 33 66 90

Cederna Garalur 948 33 63 37

Oinarrizko Gizarte Zerbitzua 948 33 40 95

Liburutegia 948 33 64 53

San Migel Ikastetxea eta Institutua 948 33 63 07

Bisitaldi gidatua Elizara 637 44 81 07

Dya 948 33 60 65

Suhiltzaile Boluntarioak 948 33 65 00

Udal Pilotalekua 948 33 61 64

Kirol Gunea 948 33 67 06



AURKIBIDEA

3. 2022RAKO AURREKONTUAK ONETSI DIRA NAFARROAKO 2022KO AURREKONTUETARAKO AKORDIOA, ONURAGARRIA AGOITZENTZAT
4. UDALAK FINANTZATZEKO EREDU BERRIA 400.000 EURO, ITOIZKO URTEGIAK KALTETUTAKO UDALERRIENTZAT
5. AUZOETAKO BILERAK, BERRIRO AGOITZEN WHATSAPP BIDEZ IGORRIKO DA UDAL INFORMAZIOA
6. IBILGAILUEN JOAN-ETORRIA MUGATUA DUTEN ERE-MUETAN SARTZEKO TXARTELAREN (DOAN) ESKATZEA BERRIRO ARGITARATU DA HERRIKO BALIABIDEEN GIDA
7. AGOITZEK BIRGAITZE ENERGETIKOA SUSTATU DU HERRIKO DU 100 ATARI ETA 508 ETXEBIZITZATAN IRACHE KONTSUMITZAILEEN ZERBITZUA
8. IRATIKO NATUR BIDEAREN OBRAK AURTEN HASIKO DIRA TURISMO JASANGARRITASUNERAKO PLANA: PIRINIOAURREA ETA ZANGOZA
9. CEDERNA-GARALURREN URTEKO BALANTZEA "BIZIKLETAN ADIN GUZTIAK" PROIEKTUA
10. ELOKO TEILERIAN FUSILATUTAKO 106 PERTSONEN ALDEKO OMENALDIA ELIZAK 2.952 ONDASUN INMATRIKULATU DITU
11. DESKONEKTATU ELEKTRIKETATIKI UDAL TXIKI BERRIA ERATU DA AGOIZKO ZOKOKO BIGARREN EDIZIOA OSPATU DA
12. AZAROAREN 25EKO ZIKLOA ADIERAZPEN INSTITUZIONALA, TUTERAKO SARA PINA YEREGUI ERAILKETA DELA ETA
13. ESKUALDEAK GENERO INDARKERIAREN AURKA ARITZEKO PROTOKOLOA XEDATU DU ASpace FUNDAZIOAK 50 URTE BETE DITU
14. AGOITZEN ERE ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK 2021 ZUHAITZAREN EGUNA, AGOITZEN IRATI MANCOMUNITATEAK GOGORARAZTEN DU
15. HAZTEKO, BEHATZEKO, IKASTEKO ETA SORTZEKO GUNE BERRIA AGOITZEN ERE "NARICES" EMAKUME PAILAZOEN NAFARROAKO I. NAZIOARTEKO JAIALDIA XVI. ARGAZKI LEHIAKETA EBATZI DA
16. KULTUR BALANTZEA
17. EGUBERRIETAKO BALANTZEA V. AGOIZKO MENDI LASTERKETA
18. KANPONDOA, ETORKIZUNEN APOSTUA AGOITZEN HASI ZEN ERREMONTE TXAPELKETA MINTZAKIDE, EUSKARAZ ARITZEKO TOPAKETAK



2022RAKO AURREKONTUAK ONETSI DIRA

3.637.275 euro. Agoizko Udak datorren 2022rako onartu zuen aurrekontuaren zenbatekoa da hori. 2021eko aurrekontuekiko ia milioi bat euro gehiago dira. Hiru faktore nagusik eragin dute igoera. Alde batetik, Itoizko urtegiatik konpentsazioekin lotutako partida berriak onetsi dira: 400.000 euroko partida bat, EH-Bilduk eta Gobernuak adostutakoa, urtegiak kaltetutako lau udalerrientzat, zeinetatik Agoizko Udak 188.000 jasoko dituen; eta Proiektu Estrategikoetako arloko 250.000 euroko beste partida bat, Agoizko udalarentzako 117.500 euro aurrikusia dituena. Bestalde, udalak finantzatzeko eredu berria onetsi da: bertan, Agoitz eskualdeko trazio-udalerritzat hartuta dago, eta, ondorioz 133.000 euro gehiago emanen zaizkio. Azkenik, IDAEk (Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioa) kudeatzen dituen Next Generation Europako berreskuratzeko-funtsen diru-laguntzen deialdiengatik diru-sarrerak handituko lituzkete (dirulaguntza onetsiko balitz). Laguntza horiek % 85etik % 100era bitartekoak dira, eta DUS 5.000 funtsak ematen ditu (5.000 biztanletik beherako herrietarako). Agoitzek bost proiektu handirako finantzaketa eskatu du, 676.000 euroko guztira, eta guztiek dute izendatzaile komun bat: energia aurreztea eta berriztagarrien aldeko apustua.

Asmoa da lan hauek egitea: Udal igerilekuko inguratzaile termikoa (estalkia) berritzea, Toki Eder frontoian autokontsumorako instalazio fotovoltaiko bat sortzea (udal-erakinen kontsumorako eguzki-plakekin), eta udaletxean, Haur Eskolan eta Gizartetxean gasolio-galdarak kendu

eta aeroterma bidezko hiru klimatizazio sistema sortzea. Diru-laguntza horiek ematen ez badira, proiektuak atzeratu egingen dira, beste une batean gauzatzeko.

Halaber, Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzen deialdiaren zain, inbertsioen kapituluaren beste proiektu batzuk planteatzen dira. Laguntza bilatuko da ikastetxeko kanpoko arotzeria berritzeko (60.000 euro) eta kirol-pistan harmaila bat sortzeko (29.000 euro). Ildo beretik, pilotalekuko eta futbol-zelaiko argiztapena (LEDera) aldatzea aurreikusten da (100.000 euro); gainera, 20.000 euro erabiliko dira haur-parkeak berritzeko, eta



NAFARROAKO 2022KO AURREKONTUETARAKO AKORDIOA, ONURAGARRIA AGOITZENTZAT

Nafarroako Gobernu eta EH Bildu-Nafarroa talde parlamentarioa 2022ko Nafarroako Aurrekontu Orokorren onarpena bermatzeko akordiora iritsi dira. Sinatutako agiriari eragin nabarmena izanen du Agoizko eta eskualdeko udalen diru-funtsetan, eta inbertsioak egin ahal izateko injekzio ekonomiko bat suposatuko du ere.

Lortutako akordioak udal finantzaketaren eredu berriarekiko konpromisoa jasotzen du, Agoitzek 133.000 euro inguru gehiago jasoko ditu 2021eko ekitaldiarekiko. Gainera, Toki Inbertsioen Plan berriak (PIL), non Nafarroak urtero 30 milioi euro inbertituko dituen, urtero inbertsioetarako kapital funts bat bermatuko du. Horrela, Nafarroako udalerrri eta kontzeju guztiek zenbateko egonkorra jaso ahal izanen dute urtero, beren beharren arabera jarduerak finantzatzeko.

Era berean, sinatutako testuak Itoizko urtegiak eragin eta kaltetutako udalarentzako konpentsazio ekonomikoa jasotzen du. Agoitzek, Artzibarrek,

Oroz Beteluk eta Longidak 400.000 euro jasoko dituzte transferentzia arruntetatik, urtegiaren eraikuntzaren bidegabekeria historikoa partzialki zuzentzeko. Banaketa-ehunekoa: % 47 Agoitz, % 24 Artzibarren eta Longidan, eta gainerako % 5a Oroz Betelun. Banaketa hori bera aplikatuko zaie lau herri horietan inbertsio-proiektuetara bideratutako 250.000 euroei.



37.000 euro Gizartetxearen eraikinaren 2. solairua eraberritzeko eta gizarte-kolektiboentzako erabilera-gune bihurtzeko.

Horretaz gain, osoko bilkuraren saio berean bi aurrekontu gehiago onartu ziren: Agoizko Udaleko Musika Eskolaren Patronatuarena, 193.150 eurokoa (80.000 euroko diru-laguntza izanen du) eta Kanpondoa enpresa publikoarena, 512.000 eurokoa (240.000 euro udalaren ekarpenaren bidez finantzatuko dena). 2022ko ekitaldirako zergak, tasak eta plantilla organikoak onartu ziren (aurreko urtearekiko ez da aldaketarik izan).



Zalantzarik gabe, albiste ona izan da, EH Bildu-Nafarroa talde parlamentarioari esker, eskualde honen aldarrikapen historikoa negoziatu baitu. Hurrengo ekitaldietarako, tokiko finantzaketarako legearen bidez zuzeneko laguntza bat zehaztea falta da, urtez urte, Itoizko urtegiaren eraginak iraun arte, lau udal horiei bidezko konpentsazio ekonomikoa emanen diena. Itoizko mahaiko lan-batzordeak, ukitutako udalerrietako lau alkateek eta Lurralde Kohesio eta Lurralde Antolamendu, Etxebizitza, Paisaia eta Proiektu Estrategikoen sailek parte hartzen duten batzordeak, laguntza behin betiko arautzeko formula bilatuko du. Oraingo, bi bilera egin dira, eta mahai gainean dagoen proposamen bakarra eragindako lau udalek planteatutakoa da.

Bestalde, aurrekontuen dokumentuan 450.000 euroko partida bat ere jasotzen da, Pirinio eta Aurrepirinio eremurako batxilergoko institutu bat eraikitzeko proiektua egiteko.

UDALAK FINANTZATZEKO EREDU BERRIA

Nafarroako Gobernuak eta Parlamentuko talde guztiek, Navarra Sumak izan ezik, Nafarroako udalerrri eta kontzejuntzako finantzaketa-eredu "bidezkoa, solidarioa eta behar adinekoa" adostu dute.

Sistema berriak (2022ko aurrekontuetan sartuko da) bidezkoagoa izan nahi du: finantzaketaren zati bat toki-erakundeek ematen dituzten zerbitzuekin lotzen ditu eta 29 udalerrri traktoreren papera aitortzen ditu lurralde osoan. Bestalde, solidarioa izan nahi du eta udalerrri txikietan gehiago eragin. Eta behar adinekoa ere: 2022. ean 271,7 milioi eurora iritsiko da, hau da, aurten baino 16,4 milioi gehiago izanen dira. Finantza-zioa egonkorra izan dadin, urtero eguneratuko da finantzaketa, aurreko urteko KPI-a gehi 2 puntu gehiago aplikatuz.

Gainera, egungo banaketaren irizpideak partzialki aldatzen ditu. Horrela, Transferentzia Arrunten Funts Orokorraren zenbatekoa 196,6 milioi eurokoa izanen da 2022an. Bigarrenik, funts berri bat aurreikusten da, 44,5 milioiokoa,

toki-erakundeek ematen dituzten zerbitzuen arabera banatuko dena. Banaketa egiteko, kontuan hartuko da zerbitzu hauek ematen diren: 0-3 urteko ikastetxea, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoa eta liburutegia. Funts horretan, halaber, montepioen modulu bat sartu da, eta Kontuen Ganberak 2017ko txosten batean emandako gomendioak bete dira. Hirugarrenik, Lurralde Kohesiorako Funtsa sortu da, 16,2 milioiokoa, eta hogeita hamar bat udalerrik jasoko dutena, Agoitzek besteak beste.

30 MILIOI URTEAN PIL BERRIA ETA EGONKORRA IZATEKO. Nafarroak 30 milioi euro inbertituko ditu urtero Nafarroako herri guztietan zerbitzuak eta azpiegiturak hobetzeko (hornidura, sareak eta zoladura, etab.). Lurralde Kohesiorako Departamentuak PSN-PSOE, Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa, Podemos Ahal Dugu eta Izquierda-Ezkerrarekin lortu duen akordioa da.

Toki Inbertsioen Plan berriak (PIL) urtero inbertsioetarako kapital-funts bat bermatuko du. Horrela, Nafarroako udalerrri eta kontzej

guztiek zenbateko egonkorra jaso ahal izanen dute urtero, beren beharren araberrako jarduerak finantzatzeko.

Inbertsio-lerroei dagokionez, toki-erakundeek helarazitako premiekin bat datoz, eta honako hauetan jasotzen dira: inbertsio-programetan, Tokiko Programazioan eta Zehaztapan Libreko Programan. Lehenengo lineak 9 milioi euro izanen ditu, bigarrenak 12 milioi eta hirugarrenak 9 milioi. Inbertsio Programak eta Tokiko Programazioa hiru urterako plangintzarekin gauzatu dira. Zehaztapan Libreari dagokionez, zenbatekoa urtero banatuko da.

Plan Estrategikoaren hiru inbertsio-erlo horiek Berreskuratzeko, Eraldaketara eta Erresilientzia Planean jada sartuta dauden beste batzuekin osatuko dira. Plan horretan, dagoeneko, aurreikusita daude birgaitze eta efizientzia energetikoko proiektuak, autokontsumoa, sareen bidezko digitalizazioa, mugikortasun jasangarria, egoitza-zentroetako erreformak eta abar.

400.000 EURO, ITOIZKO URTEGIAK KALTETUTAKO UDALERRIENTZAT



Nafarroako Parlamentuak, 2022ko Aurrekontuak prestatzeko batzordeak egindako eztabaida-saio batean (toki entitateak finantzatzeko ereduaz aztertzen zuena), hainbat zuzenketa onartu ziren, ehun bat herritako obrak eta jarduerak finantzatzeko.

Lurralde Kohesiorako Departamentuari 143 zuzenketa eztabaidatu ziren, eta horietatik 64 onartu ziren. Navarra Sumak proposatutako bat ere ez. Gainerako talde parlamentarioek Javier Esparzaren koalizioak aurkeztutako 50 bat aldaketak errefusatu zituzten parlamentuko alder-

diek. Zuzenketa horietako batzuek milioi askoko aurrekontu-zuzkidura planteatzen zuten, baina, ordea, ez zuten bideragarritasunik. Hori gertatu zen, besteak beste, aurreko ekitaldian ere aurkeztu zuen zuzenketa batekin: 18 milioi euroko zenbatekoa zuen, Itoiz-Nafarroako Ubidea Fundazioak egiteko dituen proiektuak konpentsatzeko. Fundazioa, ordea, Yolanda Barcinaren gobernuak kitzatzea erabaki zuen 2014. Urtean. Garai hartan obra batzuk hasita zeuden eta diru-laguntzarik gabe utzi zituen; ondorioz, inguruko udal ordaindu behar izan zituzten gastu horiek.

Parlamentuak, baina, onartu egin zuen EH Bilduk aurkeztutako 400.000 euroko zuzenketa bat, Itoizko urtegiak kaltetutako herriak konpentsatzeko. Proposamen horiek Parlamentuko talde guztien babesa izan zuten, Navarra Sumarena izan ezik (guztien aurka bozkatu zuen). Koalizio abertzalearen arabera, zuzenketa horien bidez aurrekontuetan jada jasota dagoen partida baten banaketa bermatu nahi da, azpiegitura jasategatik urtegiaren ondoko herriek jasaten duten kaltea aldi baterako arintzeko.

EH Bilduk finantzaketa arrunt eta egonkorra eskatu zuen, foru lege baten bidez, Itoizek kaltetutako herrientzat, urtegiak zonari egiten dion kaltea justifikatuz, eta Nafarroako beste eskualde batzuei kanalarri esker ahalbidetzen dien garapena.

AUZOETAKO BILERAK, BERRIRO AGOITZEN



Agoizko Udaleko arduradunen eta herriko auzo eta inguruetako bizilagunen arteko bilerak azaroan itzuli ziren, haien kezak, iradokizunak eta/edo erreklamazioak ezagutzeko. Hilaren 16an eta 17an egin ziren bi topaketa, eta aurten ere balio izan zuten auzoetako biztanleek beren proposamenak Udalarri helarazteko.

Aurrez aurreko auzoko bilerak aurten hasi ziren berriro, joan den ekitaldian ezin izan zirelako egin, pandemiaren ondorioz leku itxietako gehieneko pertsonen edukieraren murrizketagatik. Hala ere, Udalak, alternatiba gisa, hainbat komunikazio-bide jarri zituen herritarren eskura, herritarrek beren ekarpenak helaraz diezazkieten udal-arduradunei.

Udal ordezkariak azken urtean aurrera eramandako hainbat proiektu azaldu zituzten. Horrez gain, Udalak datorren ekitaldian landu nahi dituen zenbait ideia aurreratu zituzten: autokontsumorako eguzki-instalazio fotovoltaikoak arautzeko ordenantza bat onartzea, terrazak

eta ostalaritzarekin lotutako beste elementu batzuk jartzeko araudia egitea, haur-parkeak eraberritzea, kale batzuetako seinaleak aztertzea eta zuzentzea...

Bileretan beste gai aipagarri batzuk ere agertu ziren, besteak beste, badaudela herrian argi eskazia duten zenbait leku, kale batzuetan zola narriatuta dagoela, trafikoa eta aparkalekuen afera,...

Gizalegearen aurkako ekintzek eta zaratek eragindako eragozpenek udal-eskumenetik haratago doan eztabaida sortu zuten. Hala eta guztiz ere, Udala etengabe ari da arazo horretan lanean, eta azken urteotan hainbat kanpaina abiarazi ditu, non azpimarratzen baitu Agoizko herritar guztien hezkuntza eta elkarrekiko errespetua.

Industrialdean HHSen Mankomunitatearen gune garbia ireki ondoren, bide publikoan tamaina handiko ibilgailuen kopurua murriztu dela nabarmentu zen, nahiz eta oraindik kontzientziazio-lan

handia egin behar den.

Eta askotariko iradokizunak eta ekarpenak egin ziren, guztion artean gure herria hobetu dezagun ideia eraikitzaileekin.

Angel Martin Unzué alkatearen hitzetan, garrantzi handikoa iruditzen zaigu herritarrek beren kezak zuzenean helarazteko aukera izatea topaketa hauek. Nahiz eta urtean zehar hainbat modutan jar daitezkeen gurekin harremanetan, bilera horiek aukera ona dira bertaratu nahi duten auzotar guztiei entzuteko eta, horrela, gure jardueraren agendan gauzatu daitezkeen eta teknikoki eta ekonomikoki bideragarriak diren eskaerak sartzeko. «Orain, osasun-egoera hobetzen ari denez, argi gure presentziazko bilerak egin nahi genituela», gaineratu zuen.

Herritarrek parte hartzeko prozesu honetan bildutako proposamen guztiak behatu eta aztertu egingen dira, ahal den neurrian, udal-erlotoetako lanetan txertatzeko.

WHATSAPP BIDEZ IGORRIKO DA UDAL INFORMAZIOA

Agoizko Udalak abian jarri du herritarrei informazioa zabaltzeko bide berri bat: WhatsApp aplikazioaren mezularitza-zerbitzua.

Zerbitzu arina, azkarra eta doanekoa da, eta horren bidez nahi duten herriko guztiek beren telefonoan jasoko dituzte Agoizko jardueraren buruzko informazioa, albisteak edo bestelako abisuak.

Azpimarratu behar da informazioa jasotzeko zerbitzua izanen dela eta ez dela mezuei eta deiei erantzun behar izanen, ezta gorabeheren edo kexen berri emateko bide gisa erabili ere.

Komunikazio zerbitzu berri hau ez da WhatsApp talde bat, mezuak hedatzeko kontaktu zerrenda bat baizik, ekitaldi eta gertakari buruzko informazio zehatzagoa izateko, orain arte bezala, udalaren webgunearan eta Udalaren sare sozialen bidez zabaltzen jarraituko baita.

Zerbitzuan alta eman ahal izateko, nahikoa izanen da ALTA hitza WhatsApppe igortzea 690 630 530 zenbakira. Modu berean, udalaren mezurik jasotzen jarraitu nahi ez izanez gero, BAJA hitza bidali behar da zenbaki berberara.



IBILGAILUEN JOAN-ETORRIA MUGATUA DUTEN ERE-MUETAN SARTZEKO TXARTELAREN (DOAN) ESKATZEA

Gaur egun, Agoizko Udalak Trafikoko Udal Ordenantza bat dauka, 2019ko martxoaren 7ko Osoko Bilkuran behin betiko onartu zena. Ordenantza hori Udalak bide publikoen erabilera trafikoari dagokionez arautzeko beharrari erantzuten zion, batez ere automobilerik dagokienez.

Ordenantza horren ataletako batean aparkatzeko/gelditzeko eremu mugatuak arautzen dira, non egoiliarrek ez diren pertsonak edo baimenik gabeko ibilgailuek ezin dituzten beren ibilgailuak ordutegi batean ere aparkatu, eta kanpoan geratzen dira indarrean dagoen gaikuntza-txartela duten egoiliarren ibilgailuak, bai eta udal-araudiaren xehetasunetan kontsultatu daitezkeen beste batzuk ere.

Joan den azaroaren 15az geroztik, Udaletxeko bulegoetan eska daitezke, doan, hiriko alde zaharrean sarrera mugatua duten pertsonen ibilgailuentzako txartelak, kale hauetarako: Domingo Elizondo, Mariano García, Irigoien, Santa

Ana, Labeko zeharkalea, Trinkete, Larraineta, Merkatuko plaza, Hirikoa, Plazakoa, Erreginordearena, Pasalekua, Kaskabobo eta Maskaritena.

Txartela eskuratu ahal izateko, eskatzaileek baldintza hauetako bat egiaztatu beharko dute:

1. Babes Bereziko Eremuan (BBE) egoitza duen erroldatutako ibilgailu baten pertsona fisiko edo juridiko titularra izatea.
2. Etxebizitza baten jabea izatea edo bertan erroldatuta egotea, edo LMEn egoitza duen saltoki baten jabea izatea.
3. Ibilgailurik gabeko mugikortasun urriko pertsonaren zuzeneko senidea izatea, BBEan bizi dena (gehenez txartel 1 eragindako pertsona bakoitzeko).
4. Txartela berritzen den kasurako, egoiliar-txartela lortu zenetik, txartela lortzeko eska




BERRIRO ARGITARATU DA HERRIKO BALIABIDEEN GIDA

Joan den urtearen amaieran, Agoizko Udalak zerbitzuen gida bat argitaratu zuen, herriko intereseko datuak eta erreferentziak eskaintzeko. Baliabide berri hori Tokiko Agenda 21en barruan zegoen ekintza baten ondorio zen, eta tokiko telefono-gida simple bat herritarren eskura jartzeko balio zuen, interes handieneko kontaktu haiekin.

Orain gida hau osatu eta berrargitaratu egin da. Formatu berriak 64 kontaktu biltzen ditu, hainbat gairen arabera sailkatuta: Udala, Gizarte Ongizatea, Osasuna, Zerbitzu Juridikoak, Garraioak, Kultura, Kirola, Hezkuntza eta Prestakuntza, Nafarroako Gobernua, Ondarea eta Babes Zibila. Agoizko plano zehatz batek, ikono-

grafia bost hizkuntzatan (gaztelania, euskara, ingelesa, arabiera eta errumaniera), osatzen du euskarri berria. Baliabideen gida hau udal-letxera erroldatzera iristen diren pertsona guztiei emanen zaie, eta hiribilduaren aurkez-

BALIABIDEEN GIDA AGOITZ



daitezkeen baldintzaren bat ez betetzea dakarren zirkunstantzia-aldaketarik ez dela gertatu egiaztatu behar da.

Txartela eskatzeko bi kasu daude, 4 urtean behin modu iraunkor berriztagarrian (ohiko bizilagun egoiliarrek, alde zaharrean kokatutako saltokietako titullarrak, Agoitzen ibilgailurik atxiki gabe bigarren bizilekua duten bizilagunak, alde zaharrean bizi ez den eta mugikortasun murriztua duen pertsonaren zuzeneko senidea, Osasun Zentroa eta Gizarte Zerbitzuetako langileak), edo puntualki (obra-baimena duten gremioak eta profesionalak, hileta-zerbitzuak, udaletik bidezkatat jo daitezkeen beste batzuk).

NANaren, eskatzailearen gidabaimenaren eta ibilgailuaren zirkulazio-baimenaren kopia konpultsatu bat nahikoa izanen da gaikuntza-txartela lortzeko.

Bestalde, gogoratu Udalaren webgunean ikus daitekeela Agoizko Trafikoari buruzko Udal Ordenantzaren xehetasun guztiak.

Guztionean Agoitz jasagarriagoa egin dezagun.

Dagoeneko, udal-bulegoetan jaso daitezke Agoizko alde zaharreko trafiko-eremu mugatuetan zirkulatu ahal izateko ibilgailu-txartelak.

Otsailaren 1etik aurrera, BEHARREZKOA da alde zaharretik dabilzan ibilgailu guztiek, eta trafiko mugaturako sarbideetan aparkatzen dutenek (araudiak ezarritako mugei jarraikiz) txartela ibilgailuaren kris-talean ikusteko moduan izatea.

pen-gutun simple batekin batera dator. Udalaren eta jarduera hau babesten duten gizarte-eragile guztien helburua da gure herrira bizitzera iristen diren pertsona guztien integrazioa erraztea.

Gida hori, gainera, herritar guztien eskura dago, eta Agoitzen dagoen zerbitzu eta baliabideen sarearen ikuspegi orokorra eskaintzen du. Erabilgarritasun handienekoak izan daitezkeenak hautatu ditu, biztanleria osoaren profil orokorra kontuan hartuta, bertakoa zein migratzailea.

Kultur Etxeak, Udalak, Osasun Zentroak, Gizarte Zerbitzuek eta Kanpondoak gida hau izanen dute ale bat jaso nahi duten guztientzat.

AGOITZEK BIRGAITZE ENERGETIKOA SUSTATU DU HERRIKO DU 100 ATARI ETA 508 ETXEBIZITZATAN

Agoizko Udalak, urtarilaren 13an egindako osoko bilkuran, Nasuvinsarekin lankidetzaz-hitzarmena onartu zuen ELENA-Udaberria proiektu europarra abian jartzeko. Proiektu horren helburua eraikitako inguruneen birsorkuntza energetikoa da.

100 atari eta 508 etxebizitzako eremu batean egin daitezkeen jarduketak aurreikusita dago, honela banatuta: Irigai auzo berria (18 atari eta 144 etxebizitza); Irigai auzo zaharra (10 atari eta 120 etxebizitza); San Migel auzoa (6 atari eta 100 etxebizitza); Txantrea (48 etxebizitza); Barraute Kondea (6 atari eta 15 etxebizitza); Landakoa (7 atari eta plaza eta 45 etxebizitza)

Hala, onartutako hitzarmenak 2024ko apirilaren 30era arteko indarraldia izanen du, eta beste urtebetez luzatu ahal izanen da. Administrazioen arteko gehieneko lankidetzaz-esparru bat ezartzen du, udalerriko eremu horietan banatutako bizitegi-parkearen energia leheneratzeko proiektuetan dinamizazio- eta laguntza-lanak egin ahal izateko.

Horietan, ekintza koordinatuak jarriko dira abian, energia birgaitzeko, instalazio termikoak hobetzeko, eraginkortasun handiko instalazio alternatiboak sustatuz, eraikinetan energia berriztagarriak sartuz eta erabilera publikoko espazioa hobetuz eta egokituz. Auzo-erkidegoek erabaki beharko dute atxikiko diren ala ez, eta udal-korporazioak oso positibotzat jo du hori.

Agoizko Udalak, gainera, jendeari artatzeko gune bat izanen du, eta beste bat bizilagunekin eta jabeen komunitateekin bilerak egiteko, zalantzak argitzeko eta informazioa trukatzeko.


Udalak birgaitzerako laguntzen udal-ordenantzak mantenduko ditu, prekarietate ekonomikoko egoeran dauden bizilagunen obren (hala nola inguratzaile termikoen) kostuetarako ekarpena murrizteko, jabeen erkidegoetan erabakiak hartzea edo familia bakarrek etxebizitzetan

IRACHE KONTSUMITZAILEEN ZERBITZUA

Irache Kontsumitzaileen Elkarteak, hileko azken asteazketan, doako zerbitzua eskaintzen du Agoizko Udaleko bulegoetan, herritarrek aholkatzeko eta haien eskariei erantzuteko.

Zerbitzua 10:00etatik 13:00etara eskaintzen da, eta, erabiltzeko alde aurretik hitzordua eskatu behar da 948 012 012 telefono zenbakira deituta.

Gogorarazten dugu Irache Kontsumitzaileek Agoizko Udalarekin lankidetzan eskaintzen



AURRIKUSITAKO JARDUERA-EREMU POSIBLEAK

jarduketak egitea errazteko helburuarekin. Eta, gainera, proiektuaren eremuetako espazio publikoak eta erabilera publikoko espazio pribatuak egokitzea eta berrurbanizatzea ahalbidetu eta erraztuko du.

Birgaitze energetikoko proiektuan jasota dauden eta Agoizko zenbait eremutan egin asmo diren jarduketan xehetasunak ezagutzeko, lau bilera egin ziren aurreikusitako auzo horietako bizilagunekin.



duten zerbitzu hau doakoa dela interesa duten pertsona guztientzat, eta bertan kontsumo-eskubidearekin zerkusia duten gai guztiei buruzko aholkua eta defentsa jasotzen ahal dela, eta, bereziki, eguneroko bizitzan ohikoagoak diren horiei buruz: etxebizitza, bizilagunen komunitateak, aseguruak, ibilgailuak, finantza-erakundeak, merkataritza, telefonia eta internet, osasuna, bidaiak, zerbitzu teknikoak, argia, ura, gasa, isunak, administrazioa, ikasketak...

IRATIKO NATUR BIDEAREN OBRAK AURTEN HASIKO DIRA

Irati Trenaren Bide Naturala berreskuratzeko lanak aurtan bertan hasiko dira, zenbait urtean zain egon ondoren. Proiektua aspaldi aurkeztu zuten Madrilen Foru Gobernuaren, 9 udal sustatzaileen eta Cederna Garalurren ordezkariak, Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioan hain zuzen ere. Ministerioa arduratu da horiek berrikusteaz, eta, azken urteetan hainbat errekerimendu zuzendu ondoren, Pirinioetako Hegoaldeko isurialdeko Bide Naturalaren Plan Zuzentzailean sartu zuen, obrak hasi ahal izateko guztiz prest.

Estatuak eman dio, dagoeneko, oniritzia proiektuari, eta 2022rako finantzaketa ere prest dago.

Zehazki, lehenengo faseko lanetarako, Estatuaren Aurrekontu Orokorretan 800.000 euroko hasierako partida bat esleitzea erabaki da, Estatuak osorik finantzatu duen guztizko kostuaren bost milioi euro ingurukoa.

Proiektua hiru fasetan gauzatuko da, eta El Irati trenbide estuko trenbidearen jatorrizko trazadurak (Agoitz, Zangoza eta Iruñea lotzen zituen) 58km-etatik 49,35 kilometro berreskuratzeko ditu. Zehazki, Uztarroitz (Eguesibar) eta Zangoza artean eta Billabeta (Longida) Agoitzekin lotzen zuen bidearen adarra. Uharte eta Uztarroitz lotzen dituen 11.600 metroko zatia Iruñerriko Mankomunitateak eta Nasuvinsak

egin dute Iruñerriko Bicimugi tartea egokitzeko obra batzuekin.

Proiektu hau 1993an hasi zen martxan, 2011n bultzada handia hartzeko, eta egunetik egunera errealitate izatetik gertuago dago, dauden proiektuen artean bide garrantzitsua eta zeharkatzen duen eremuarentzako pizgarri indartsua baita.

Urtebetean, Orbaizeta eta Agoitz artean, Eurovelo 3 sarearen barruan, "Bicimugi" proiektuaren trazatuaren obrak ere egingen dira, Iratiko Natur Bidearen ondoan Iruñerako eta Donejakue Biderako bizikleta-bide bat sortzeko. Zalantzarik gabe, oso berri onak.



TURISMO JASANGARRITASUNERAKO PLANA: PIRINIOAURREA ETA ZANGOZA

Nafarroako Gobernuak Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Zuzendaritza Nagusiak abian jarri ditu Turismo Guneak Kudeatzeko Unitateak (UGET). Horietako bat Pirinioaurrea eta Zangozako eskualdea da. Turismoa kudeatzeko sistema berri bat ezarri nahi da lurralde osoan, plangintza, koordinazioa eta antolaketa eraginkorrean zentratua, Next Generation funtsek sektorea eraldatzeko eskaintzen diguten aukera aprobetxatuz. Era berean, ezinbestekoa da lurraldeko eragilean lankidetzaren eta Nafarroako Gobernuak beste departamentu eta enpresa publiko batzuekiko lankidetzaren.

Ibilbide berri honen lehen urratsa Nafarroako helmuguen jasangarritasun turistikoaren plana egitea da. Plan hori azaroaren 30ean hasi zen, programatutako hiru partaidetza-bileretatik

lehenengoarekin. Zangozan egin zen, eta lehenengo topaketa horretan, tokiko erakundeen, turismo-eragileen eta, oro har, herritarren parte-hartzearekin, turismoaren diagnostikoa eta analisia islatu nahi izan zen gure UGET Pirinioaurrea-Zangozan.

Bigarren saioa Agoitzen egin zen, abenduaren 21ean, eta bertan zehaztu ziren, batetik, jarraitu beharreko ildo estrategikoak eta, bestetik, Ekintza Turistikoko Planaren parte izanen diren jarduerak. Horiek abiapuntutzat hartuko dira datozen hiru urteetan gure eskualdean turismo jasangarriari begirako eraldaketa planifikatzeko eta garatzeko, eta Europako eta erregioetako funtsetatik dirua jaso ahal izateko. Irunberri izan zen hirugarren topaketaren egoitza.

LANKIDETZA-HITZARMENA. Agoizko Udalak, Pirinioaurreko eta Zangozako Eskualdeko gainerako Udalekin batera, turismo iraunkorraren arloan estrategia komun bat garatzeko hitzarmena sinatu dute, zonaldearen garapen sozio-ekonomikoan eragina izanen duena. Alde horretatik, hitzarmen honen helburua da erakunde sinatzaileen arteko lankidetzaren eta koordinazioaren nondik norakoak definitzea, Pirinioen aurreko eta Zangozako eskualdeko turismoa sustatu eta garatzeko ekintzak eta proiektuak programatu eta gauzatzeko.

Hitzarmena sinatu duten herri guztiek finantzatu dituzte kudeaketa ekonomikoa eta funtzionamenduaren ondoriozko kostuak, udalerririk bakoitzeko biztanle-kopuruaren arabera.

CEDERNA-GARALURREN URTEKO BALANTZEA



Urtarrilaren 25ean, Cederna-Garalurreko Garapen Agentziaren urteko jarraipen-bilera egin zen, 2021eko balantzea egiteko eta 2022ko lan-ildoei buruzko informazioa emateko.

Bilera horretan, landa-garapenerako programen inguruan abian diren eta etorkizunean izanen diren jarduerak azaldu ziren, bai eta COVID krisiaren ondorioz irekitako eta zuzenean edo zeharka etorkizun hurbilean gure herrian eragina izaten ari diren eta izanen duten suspertze-programa europar berriak ere.

Bereziki jorratu zen gure herrian enplegua eta negozio-ekintzaileei laguntzea izeneko kapitulua.

Pirinio aurreko eskualdeko despopulazioaren egoera aztertu zen (8,3 bizt./km²), nahiz eta azken urte hauetan hobera egin duen. Gainera, gure herriaren (eskualdeburua) hazkundera moteldu egin da, baita; izan ere, eskualde horretan 14 biztanle baino ez ziren hazi (% 0,5 gehiago), eta aurreko urtean 86 izan ziren.

Enpleguari dagokionez, Pirinio aurreko enpleguak azken urtean bilakaera positiboa izan zuela azaldu zen, langabezia-tasa %7,7 jaitsi baitzen, eta Agoitzen (%9) oraindik ere hobeago izan zen, 62 langabe gutxiago erregistratu baitziren enplegu-bulegoetan. Hala eta guztiz ere, langabeziaren jaitsierak portaera okerragoa izan zuen Nafarroako gainerako erkidegoetan

"BIZIKLETAN ADIN GUZTIAK" PROIEKTUA

Nafarroan bizikletaren erabilera sustatzeko Bicimugi proiektu europarraren esparruan, Nasuvinsa Sozietate Publikoak koordinatuta, Nafarroako Gobernuak kofinantzatuta eta hainbat erakundek parte hartuta, horien artean Agoizko Udala eta Cederna-Garalur, mugikortasun iraunkorra sustatzeko eta bultzatzeko hainbat jardura garatzen ari dira. Proiektua 2022an gauzatuko den arren, Agoitzen azaroaren 13an aurkeztu zen.

Proiektu honen ekintza nagusia Eurovelo 3, Erromesen Bidearen trazadura egitea da. Ibilbide hori Orreagatik Agoitzera iritsiko da Artzibarren barna, gure herritik Iruñerantz, etorkizuneko Iratiko Bide Naturalaren barna, eta hiriburutik Santiagoraino jarraituko du.

Bicimugik, gainera, mugikortasun jasangarria sustatu nahi du Nafarroan bizikletaren erabi-

leraren bidez, adin talde eta talde guztientzat. Ekintzetako bat «adinik Gabeko Bizikleta» da, non bizikleta baita beste belaunaldi batzuekin

baino (%17,4); beraz, Agoizko Udalak argi eta garbi defendatzen ditu alde horretatik Nafarroako Gobernuarekin dituen desberdintasunak. Gainera, Pirinio aurreko eskualde-langabezia eskualde-buruarekin lotzen den froga da Pirinio aurreko langabezia % 57 Agoitzen bizi direla. Gaur egun, Agoizko langabezia-tasa % 12,1ekoa da, aurreko urtean baino zertxobait hobeago (% 13,8), baina Nafarroakoa baino askoz handiago (% 7,6), atzerritarren langabezia % 25ekoa baita. Agoitz da 2021ean ekintzaile-proiektu gehien artatu eta sortu ziren Pirinio aurreko herria (hirutik bat), eta langabetuentzako eta enpresentzako prestakuntza-ikastaroak eta -tailerrak egin ziren.

Industriaren eragina duten sektore ekonomiko guztiak aztertu ziren, honako hauek kontuan hartuta: industria-lurzoruan eta Agoizko Solanoko nabeetan hasitako ekintzak, turismoa eta zerbitzuak, ingurumenarekin lotutakoak (Alkatetzen Ituna klimaren alde, energia aurreztea, ekonomia zirkularra eta 2030 Agendak), kultura-ondarea, eta proiektu emblematicoak, hala nola Iratiko Natur Bidea, Bicimugi-Eurovelo, Pirinioaurrea-Zangozako eskualdeko Turismoa Kudeatzeko Unitatea sortzea, Solanorenak izandako pabilioiak berregokitzea, gaur egun dauden enpresa-mintegiak, Itoizko Urtegiaren ondoriozko jarduketak eta Europako 2023-2027 bitarteko dirulaguntzak programatzeko epealdi berria.

Laburbilduz, 2021ean 227 proiektu artatu zituen Agentziak; 88 pribatu eta 159 publiko; azken horiek Pirinio aurreko arroetan Cederna-Garalur jardura-arloko udalek sustatu zituzten.

konektatzen gaituen elementua, esperientziak partekatze eta egokitutako triziklo batean paseatzeko aukera ematen diguna.



ELOKO TEILERIAN FUSILATUTAKO 106 PERTSONEN ALDEKO OMENALDIA

Teileriako Ahaztuak elkarteak antolatuta, joan den urriaren 16an, Eloko Memoriaren Parkean, omenaldia egin zitzaion II. Errepublikaren aurkako kolpe militar frankistaren ondorioz kolpistek 1936ko abuztua eta azaroa bitartean hildako 106 pertsoneri. Eloko Teileriako hobia Nafarroako handiena da, eta bertan lurperatutako zerrandan Agoizko hamar lagun daude.

lazio omenaldi ekitaldia bertan behera utzi behar izan zen pandemiagatik. Eta aurtengoa, berriz ere, Patxi Aldunatek eginiko eskultura multzoaren ondoan egin da. Monumentua lur-rean iltzatutako lau teila dira, zeinetan agertzen baitira teileria izandakoaren ondoan hildako guztien izenak.

Manu Biurrun Teileriako Ahaztuak elkarteko kideak eta Ana Ollo Nafarroako Gobernuko Herriarrekiko Harremanetarako kontseilariak bi parte hartze labur izan zituzten omenaldian. Ekitaldira bertaratu ziren, besteak beste, alderdi politikotako parlamentariak, Josemi Gastón Me-



moriaren Institutuko zuzendaria eta fusilatutako zeuden herrietako udal-ordezkariek, Angel Martín Unzué Agoizko alkatea barne.

Musikak leku berezia izan zuen: txalaparta, Fermín Balentzia (Maravillas abesti ezaguna kantatu zuen) eta Cesar Asiain (Teileriarri egindakoa abestu zuen). Horretaz gain, lore eskaintza egin

zen, monumentua agertzen diren guztien izenak irakurri ziren eta Agoizko dantzariak aureskua dantzatu zuten.

Merezitako omenaldia egin zitzaion gerrako biktimei eta haien familiei Nafarroako hobi komunikandiaren, egia, justizia eta erreparazioa aldarrikatzen zen aldi berean.

ELIZAK 2.952 ONDASUN INMATRIKULATU DITU

Eduardo Santos Migrazio Politiketarako eta Justiziarako kontseilariak 1900. urtetik aurrera Elizak Foru Komunitatean immatrikulatutako ondasunei buruko Jaabetza Erregistroko 2.952 ohar aurkeztu zituen Nafarroako Parlamentuan, eta, horrela, Parlamentuaren agindu bat bete zuen, Foru Gobernuari informazio hori biltzeko eskatzen ziona. Ondasun guztien % 33 tenplu eta antzeko eraikinei dagokie, eta guztira 575 futbol-zelaiko azalera hartzen dute.



da, guztizkoaren % 33; gainerakoak nekazaritzalurrak eta soroak, baso-espazioak, etxebizitzak, frontoiak, hilerriak, zahar-etxeak (eta garai bat ere) dira, besteak beste.

Agoitzen, zehazki, zortzi ondasun adierazten dituzten zerrandak. Besteak beste, tenplua eta parrokia-

etxea, ataria, garaje bat eta finka bat Legarrea alderdian.

ETA ORAIN ZER? Jabetzak direla-eta auzitan aritzeko aukera udalei dagokie, baina oso lan konplexua da, eta zailagoa ere bada, ondasun batzuk saldua daudelako.

Edonola ere, Nafarroako Gobernuak prest dago udalei laguntzeko eta ondasun komunalen immatrikulazioa aztertzeko, Gobernuak zuzenean esku har baitezake. Aztertzen ari gara aurrekontu-partidak gaitzea ondasun horiek zehazki aztertzeko, zeintzuk diren eta «berreskuratzeko aukerak» zehazteko.

Bestalde, Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataformak bere poza erakutsi zuen, «Arrakasta» izan delakoan. "Foru Gobernuak Nafarroako Elizaren immatrikulazioen ohar sinpleak aurkeztu izana Aurrekaririk gabeko aurrerapena" izan dela uste du.

Andres Valentin bozeramaileak, salatu zuen eskuneko indar politikoa, haien epaileak eta komunikabideak, ordea, prest daudela Elizari pribilegio frankista hori mantentzeko. Orain, ziurtatu zenez, bi bide irekitzen dira, eta funtsezkoa da NUPekin hitzarmen bat sinatzea, jakiteko zer ondasun diren komunak. Gainera, Valentinek uste du beharrezkoa dela toki-erakundeei eta partikularrei aholkuak ematea ondasunak berreskuratu ahal izateko, adibidez, bulego baten bidez.

DESKONEKTATU ELEKTRIKETATIK!

Agoizko Udaleko osoko bilkurak hainbat alderdi subiranistek eta gizarte-erakundek bultzatutako mozio bat onartu zuen, herritarrei urriaren 8an, 22:00etatik 22:30era, itzalaldi elektriko masiboarako eta protesta lapiko-jotze ekintzarako deia egiteko. Helburua da Estatuari neurri eraginkorrak eskatzea, argiaren eta oinarriko beste zerbitzuen prezioaren egoera etengabea dela eta.

"Deskonektatu elektriketatik" beharrezko ekintza da, oligopolio energetiko handiek betikotzen duten iruzur elektrikoari (PPK eta PSOEK onartu eta baimendutakoa, ministro eta presidente

UDAL TXIKI BERRIA ERATU DA

Urtea amaitzear zegoela, eta pandemiak behartutako etenaldi baten ondoren, Agoizko Udal Txikia hautatu zuen berriro, eta 2022 osoan protagonismo aktiboa izanen du. Bere zeregina ez da abuztuko jai handietan Haurren Eguna mugatuko, baizik eta urtean zehar luzatuko da udal, jai eta herri agendako ekitaldi ofizialetan.

Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleek, ohi bezala, udal txiki berria aukeratzeko bozketa egin zuten. Udal txiki horrek, urte osoan zehar, txikiak ordezkatuko ditu hainbat ekitalditan, aurreko korporazioek egin duten bezala.

Udala honela osatuta gelditu da: Kimetz Romero, alkate; Unai Lizoain, Adur San Martín, Joel Romero, Oier Claveria, Nahiara Sola, Maika Lizoain, Ainhoa Esain, Aiora Larrea, Leire Javier eta Oier Nicuesa, zinegotzi; eta hauek izanen dira ordezkoak: Unax Arcelus, Iker Betelu, Julen Valdivia eta Xabier Mancebo. Guztiek herrian parte aktiboa edukitzearekiko ilusioa agertu zuten.

Alkatea eta zinegotzi-taldea Lehen Hezkuntzako seigarren mailako ikasleen artean aukeratu zituzten bi hizkuntza-ereduetan, euskaraz eta gaztelaniaz.

AGOIZKO ZOKOKO BIGARREN EDIZIOA OSPATU DA

